

BERGARAKO UDALA
ELEKTRIZITATEKO ARDURADUN PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA.
ARIKETA PSIKOTEKNIKOA
Ariketaren inguruko informazioa

Epaimahai kalifikatzaileak, udalak lanpostu honi dagokionean onartu duen profila kontuan izanda, Urriaren 11an izango den ariketa psikoteknikoa honela baloratzea onartu du:

GAITASUNEN PROFILA

Pertsonen kudeaketa. Lidergoa	
Erantzukizuna	
Koordinazioa eta Planifikazioa	
Erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea	
Autokonfiantza eta Autonomia	
Taldean lan egitea.	
Gatazkak kudeatzea eta arazoak konpontzea	
Dinamismoa eta aktibitatea	
Asertibitatea, ezetz esaten jakitea	
Talde-ikuspegia eta taldearekiko kidesun-maila	

Gehieneko puntuazioa, guztira: 25.

Gaitasun bakoitzeko puntuazioa: 2,5.

Guztira hamabi eta erdi (12,5) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

EGIN BEHARREKO PROBAK

- Banakako elkarrizketa, gaitasunen araberakoa.
- Banakako test psikoteknikoa, nortasunari buruzkoa. Egin beharreko testa hau da: "Thomas International"en Profil Pertsonalaren Azterketa (PPA/APP).

Proba horiek guztira 45/60 minutu iraungo dute, gehienez, pertsona bakoitzeko, betiere pertsona bakoitzak testa egiteko behar duen denboraren arabera.

Bi probak (elkarrizketa eta/edo testa) gaztelaniaz zein euskaraz egin ahal izango dira.

Gogorarazten da bertaratzen ez direnak hautaketa-prozesutik baztertuak izango dira.

Bergara, 2022ko urriaren 7a

Epaimahaiko idazkaria

